39. La víspera de San Juan a la noche suelen ir descalzos de Ipiña (Barrio de Zeanuri) a Gorbea, para desde allí ver salir el sol. Se traen por la mañana a casa hierbas aromáticas.

(B-zean)

40. ¿Que qué es el árbol (1) de San Juan? Cualquier rama que se corta y se fija en la puerta de casa el día del santo: ya sea de haya, ya de encino, bien de cualquier otro árbol.

(B-zean)

41. El árbol de San Juan se quema al fuego en transcurriendo un año.

(B-a: zean-di, AN-b)

42. A) En Dima (B), la noche de San Juan, a los niños atacados de caspa suelen llevarles junto al rosal y allí les hacen dar tres vueltas alrededor del arbusto.

B) En Arrona (G), a los niños atacados de caspa los llevan a San Pacífico. Esta ermita está en tierra de Azkoitia.

(1) Es el roble. Antiguamente se daba en Bizkaya este nombre a cualquier árbol.

43. Yaun Donias-egunean neskatoai ulea puzkatxo bat ebagitzen dake, ule ederña euki dagien.

44. San Juan ostiralez datoien urtea urte oso ona edo oso txarria izaten da.

45. Arabako uriburuan, Gazteiz-en, lengo gizaldirarte, urtero Doniane-goizean Zadorra-bazteíera Eriaren izenean sindiku eskribau ta urizain batzuk yoaten ziran. Urizain batek, zaldiz ibaian sartuta, sindikuaren aginduz paper bat uretara yaurtikitzen zuen. Urak papera Ebro-aldera zeramala ikustean, eskrivauak agiri bat idazten zuen. Oitura bitxi au oso zara zan. Ona emen bere yatorria. Gazteiz basauritxo bat baizik etzen egunetan, Nafarroako elege Santxo yakinunak beretzat artu ta Vitoria izentzat emanez Arabako uriburu egin zuen. 1181-garen urtean yazo zan au. Emerezti urte geroago Gaztelaniako elege Alonso VIII-garenak nafarai kenduta, len zituan legeak ontzat artu zizkien arabarai, anxe gainera-tuz: «Zadorra Ebro-aldera dijoanartean legeok izango dituzue.» Geroztik Doniane-goizean urtero bidalitzent zituen Gazteizko endoreak bere eskudun aiek, Zadorren urak Ebro-aldera otezijoazten ikustera.

tes en la mañana de San Juan, a ver si las aguas del Zadorra corrían con dirección al Ebro.

(Becerro de Bengoa, *El libro de Álava*, pág. 226.)

46. Yondane Yohane egunéan sahukitze-ostoa biltzen dugu eta in-


43. El día de San Juan, a las muchachas se les corta un poquitín el pelo para que lo tengan hermoso.

(B-di)

44. Año en el cual San Juan cae en viernes, suele ser muy bueno o muy mal año. (G-urs)

45. En la capital de Alaba, en Gazteiz (Vitoria) solían ir anualmente en la mañana de San Juan a la orilla del río Zadorra, en nombre del pueblo, síndico, escribano y unos alguaciles. Un alguacil, metiéndose a caballo en el río, arrojaba al agua un papel por mandato del síndico. Al ver que el agua llevaba el papel hacia el Ebro, el escribano levantaba un acta. Esta curiosa costumbre era muy antigua. He aquí su origen. Los días que Gazteiz no era sino una aldehuela levantada en lo más alto de la Cofradía de Arriaga, el rey de Navarra, Sancho el Sabio, se apoderó de ella, y dándole por nombre Vitoria la hizo capital de Alaba. Diecinueve años más tarde, el rey de Castilla, Alonso VIII, se la quitó a los navarros y se la entregó a los alabesos, reconociendo los fueros otorgados por el señor anterior y añadiendo lo siguiente: «Tendréis estas leyes mientras el río Zadorra corra hacia el Ebro.» Posteriormente, cada año enviaba el alcalde de Vitoria a aquellos sus representantes en la mañana de San Juan, a ver si las aguas del Zadorra corrían con dirección al Ebro.

46. El dia de San Juan solemos recoger hojas de saúco y también de



Gazteiztafak Zadoran

Los vitorianos en el río Zadorra

tzagortze-ostoa ere bai. Minentako etxeen txilintxautzen ditugu.

47. Yaundonaane gauean neskato gazte ezkondunaiak baso bat ur ezartzen dute kanpoko leiharen gainean, iru mutiko gazteen izena plegaturik haren barnean. Goizean zabalik denaren izeneko mutikoa da senargai fidelena.

48. Yondane Yohane goizan ekhia yalki gabe urak oro benedikatuik izaten zütüzün.

49. Yaun donaane-egunean guziek karota ereiten dute. Karota hori ezta nchoiz galtzen.

50. A) Zuhain batek fruiturik ezpadu ekhartea, Yundane goizan, gaiherditik landa, eriz kanpo yoan behar da, hari bat hartu eta gero zuhain aren adar-artearen ezañi.

B) Sagafondoak sagarik eztuenean, hafiz kargatzen da bere adar-artearen, edozein egunetan.

51. Yaundonaane goizean, iduzkin atera gabe, gizonek elori xuri-buketa bat etxe kantonean eta fontsetako seila guzietan eta emaztekiek etxearen erdian liliok kurutze bat ezartzen dute.

nogal. Solemos colgarlos en casa para los dolores. (S-bark)

47. Muchachas jóvenes ansiosas de casarse ponen un vaso de agua sobre la ventana exterior, metiendo dentro plegaditos nombres de tres muchachos jóvenes. El novio más fiel es el muchacho cuyo nombre está visible a la mañana. (BN-gar)

48. En la mañana de San Juan, antes de salir el sol, solían ser bendecidas todas las aguas. (S-bark)

49. El día de San Juan, todos siembran zanahoria. Esa zanahoria no se echa a perder nunca.

(BN-gar)

50. A) Si no produce fruto un árbol, en la mañana de San Juan, después de media noche, se debe ir fuera del pueblo, coger una piedra y después colocarla entre las ramas de aquel árbol. (S-bark)

B) Cuando un manzano no tiene manzanas, entre ramas se le carga de piedras, en cualquier día.

(L-hal)

51. En la mañana de San Juan, antes que salga el sol, los hombres suelen colocar un rabillete de espino blanco en la esquina de la casa y en todas las barreras de los campos; y las mujeres ponen una cruz hecha de flores en medio de la casa.

(L-hal, BN-gar, S)

## X.—KASIANO GUREN

1. Nabarnizen, orain larogeit bat urterarte, eskola-maisu Imolan eta Brujasen obispu izandako Kasiano

## X.—SAN CASIANO

1. En Nabarniz (B), hace unos ochenta años, era patrón de los escolares San Casiano, que fué maes-

guren eskolako patroia zan. Bere egunean (dagnenilaren 13<sup>er</sup>) etserik etse ibilten ziran neska-mutiltxoak auxe abestutzen ebela:

I. San Kasiano obispo jauna, eskola-maisu entzuna; zeure koprade garean legez, egizu laguntasuna. Orain-artean usu dan legez gatoz gu zeure etxera; etxeko andrea, bota egizu limosna on bat zakura.

II. Emon egizu maisu jaunari irakasteko grazia, baita guri bere ikasteko gomuta ona ta argia. Orain-artean... e. a.

tro de escuela en Imola y obispo en Brujas. En su día (13 de agosto), los jovencitos andaban de casa en casa cantando esto:

I. San Casiano, señor Obispo, renombrado maestro de escuela; como somos vuestros cofrades, dispensadnos un favor. Según costumbre, venimos a vuestra casa; señora, echad una buena limosna al saco.

II. Dad al señor maestro la gracia de enseñar y a nosotros memoria e inteligencia para aprender. Según costumbre, etc.

Puede verse su linda melodía en el *Cancionero popular vasco* del autor de esta obra, pág. 1126.

## XI.—LORENTZO GUREN

I. A) San Lorentzo-eguerdian, lúrean, edozein tokitan aztertuta, ikatza aurkitutene eida.

B) San Lorentzok esku batean suá ta bestean ura.

Francisque Michelek 1847-gaeren urtean argitaraturiko *Oihenarten Atsotitzak* eta geigarriko 51 garena ta au alkaren antzekoak dira. *Jaun done Laurenti, esku batean euria, bestean ilinti.*

2. San Lorentzo aunditsuen abogadua da.

3. Luzaiden gauez, ohatzera doazenean, palaz sukaldoko hautsen gainean kurutzea egin ta hau eraiten

## XI.—SAN LORENZO

I. A) Dicen que al mediodía de San Lorenzo, escarbando la tierra, dondequiera se encuentra carbón.

(B-ber)

B) San Lorenzo, en una mano fuego y en la otra agua.

(B-di, G-urs, ar)

Es una variante del proverbio núm. 51 del Suplemento que publicó Francisque Michel en su edición de los Proverbios de Oihenart, de 1847, *Jaun done Laurenti, esku batean euria, bestean ilinti.* Señor San Lorenzo, en una mano lluvia, en la otra tizón.

2. San Lorenzo es abogado de los diviesos. (AN-b)

3. En Valcarlos, de noche, cuando van a la cama hacen con pala una cruz sobre las cenizas de la co-

da: «Yaun done Laurendi, nik suia estali; gaiztoik gerta badadi, bortan dadiela harri.»

### XII.—LUKAS GUREN

1. San Lukas egunean aurak besotik ertsiz eráten zen: «San Luk, eskolara bear duk, bestela zuria era manen duk.»

### XIII.—MADALENA GUREN

1. Madalena-egunean eguraldi ona bada:

A) Gaztaña-urte ona.

B) Urte atan ikondoak iko asko izango dabe; gitxi, eguraldi txarria izanezkerro.

C) Madalena-egunean eguraldi ona bada, sardaitara mendira joaten dira gizonak. Sardaia gaztainak erasteko makila luze bat da,

### XIV.—MARKOS GUREN

1. San Markos-egunean artoa ta babea goiz-mezan bedeinkatzen dira eta gero erein.

2. Artoak ereiteko garaia orduan izaten da, esakune zar onek adiara zoten dauskunez: «San Yurki (1) artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz.»

(1) Yurgi (B-a).

cina y se dice esto: «Señor San Lorenzo, yo cubro el fuego; si se presenta algún malvado, quede en la puerta hecho piedra. (BN-luz)

### XII.—SAN LUCAS

1. El día de San Lucas, agarrando del brazo a los niños se decía: «San Lucas, tienes que ir a la escuela; de lo contrario, llevarás zurras. (R-uzt)

### XIII.—SANTA MAGDALENA

1. Si el día de la Magdalena hace buen tiempo:

A) Buen año de castañas.

(B-elor-di, G-ar)

B) Aquel año, las higueras producirán muchos higos; pocos, si el tiempo es malo. (B-l)

C) Si el día de la Magdalena hace buen tiempo, van los hombres al monte a buscar palas para hacer pértigas, con que después derriban castañas. (G-ar)

### XIV.—SAN MARCOS

1. El día de San Marcos, en misa temprana, se bendicen maíz y haba, y luego se siembran. (B-a, G-matx)

2. Entonces suele ser la época de sembrar el maíz, según nos lo manifiesta este viejo proverbio: «San Jorge (23 de abril), temprano para sembrar maices; San Markos (25 de abril), si estuvieran los maices sembrados. (B-c...)

3. «San Markosetan ereiten badozue artoa, artuko dozue artoaren lastoas». Lamina batek baseritarrak esan eutsen.

4. San Markos-añeti odoiak jotzen bado, urte hura arto-urte ona.

5. San Mark: balin baduk, bota zak (lurari); ezpaduk, xerka zak.

6. San Markos-astea, atzekoa baiño auréko obea.

7. San Markos-astea, artoa ercieteko astea.

8. San Mark-egunean euria baldin bada, befogei egunec guti edo geiago euria eginen du.

9. Larabeiaik San Markoserarte txintxaría bete lasto gordetzeako esan zuen.

3. «Si sembráis el maíz por San Marcos, recogeréis la paja del maíz», les dijo una Lamia a los aldeanos. (B-I)

4. Si antes de San Marcos suena el trueno, aquel año será buen año de maíz. (G-urs)

5. San Marcos; si tienes, échalo (a la tierra); si no tienes, búscalo. (BN-garaz)

6. La semana de San Marcos, mejor la de delante que la de detrás. (G-amezk)

7. La semana de San Marcos, semana de sembrar el maíz. (AN, B)

8. Si el día de San Marcos llueve, llueve cuarenta días seguidos (Aragón). (BN-garaz)

9. La vaca silvestre dijo que hasta San Marcos se le guardara paja que cupiera en un cencerro. (G-aron)

#### XV.—NICOLAS GUREN

1. *San Nikolasen opilak*. Lasturén (G) lenago limosnatxo baten ordez opil txiki batzuk ematen zituzten. Opil aiek San Nikolasen irudia zuen gainean. Ujal-egunetan uretara bota ta ura jatxi egiten zan. Lasturtik Aronara ekarten zituzten San Nikolasen opilak.

2. Len eiri askotan Nicolas-en ordez Mikolas esaten zan euskeraz.

3. Aldi baten gure afantzalettean asko zabaldu zan guren

#### XV.—SAN NICOLÁS

1. *Tortas de San Nicolás*. Antes en Lastur (G) daban a cambio de una limosnita unas pequeñas tortas. Tenían ellas encima la imagen de San Nicolás. En días de avenida de aguas se echaban al agua y esta bajaba. De Lastur traían a Arrona las tortas de San Nicolás. (G-aron)

2. Antes en muchos pueblos en vez de Nicolás se decía *Miholas* hablando la lengua popular.

3. El nombre de este Santo se introdujo mucho en un tiempo entre

onen izena. Elantxobe ta getxo-koak patroitzat artu eben. Eta Lekeition beron en izendun ugartetxo bat dago.

4. Legortaren artean, gure egunotan beintzat, ezta bere izena asko zabaldu. Eskaleen kanta zarat edo bestetan dakusku ta dantzugu.

Ona bat:

Urte berri berri, txari-belaři, otaña beste gaztaña, gainean lukainka bi. *San Micolás coronado, confesor es muy ondrado.*

Aingeruak gera, zerutik gatoz, poltsa badegu baiña eskean gatoz.

Erdaleñitikoa dirudi *San Micolás coronado*-ren oitura onek.

## XVI.—PEDRO GUREN

1. San Pedro egunean saguen pixarekin ere ezta busti bear.

2. San Pedro egunean euria bada, berogeit egunetz euria izanen da.

Lengo ta oraingo Pedro guren au ezta apostoluen nagusia, Apirilaren 29-koa baizik.

3. Bizkai ta Gipuzkoan Pedro guren au eztazagu eriak. Bestea beriz nonnai, batez ere itsasaldean. Lan onen laugaren liburuan argitaratuak izango dira Pedro guren andiari gure eriak zuzenduriko olerkiak.

nuestros pescadores. Le tomaron por patrono los de Elanchobe y Guecho. Y hay en Lekeitio una isleta que lleva su nombre.

4. Su nombre no se ha esparcido mucho entre terrestres, por lo menos en nuestros días. Lo vemos y oímos en algún que otro cántico de postulación.

Aquí va uno:

Año nuevo, orejas de cerdo, un cesto de castañas, encima dos longanizas. *San Micolás coronado, confesor es muy ondrado.*

Angeles somos, del cielo venimos, dueños de bolsa limosna pedimos.

(V. Cancionero popular vasco, página 1145.)

Esta costumbre de invocar a «San Micolás coronado», parece procedente de tierra extraña.

## XVI.—SAN PEDRO

1. El día de San Pedro no hay que mojarse ni con orina de ratones.

(AN-b)

2. Si llueve el día de San Pedro, lloverá en cuarenta días.

(BN-s, S-uzt, S-bark)

El San Pedro de estos artículos no es el jefe de los apóstoles, sino el de 29 de Abril.

3. El pueblo en Bizkaya y Guipúzcoa no conoce a este San Pedro. El otro, en cambio, dondequiera, especialmente en la costa. En el cuarto tomo de esta obra saldrán a luz poesías dedicadas por nuestro pueblo al gran San Pedro.

4. Irakurleak liburu onen sei-gaien txatalean ikus dezake, *kaxaranka* deritzaion oitura bitxi bat, Lekeitioko eriak Guren maitagarri oni seireun bat urtetan eskintzen dion omena.

#### XVII.—TIRSO GUREN

Espartzan diagozu San Tirso eta aldi batez pařastan faten zren bere ermitara gizon ta emazte. Lamparako olioaz bustiñen zren ariak (xuri ta beltx zizun ari kuek) eta ukaraietan lotzen gintzazun ari olioztatuak. Frantziatik ere anitx xiten zren.

4. El lector puede ver en el sexto capítulo de este libro una curiosa costumbre llamada *kaxaranka*, homenaje que el pueblo de Lekeitio dedica desde hace unos seiscientos años a este amabilísimo santo.

#### XVII.—SAN TIRSO

San Tirso está en Esparza, y en un tiempo solían venir a su ermita hombres y mujeres en bandadas. Mojaban hilos (eran estos hilos blancos y negros) con el aceite de la lámpara, y los hilos así mojados los ataban en las muñecas. Aun de Francia venían muchos. (BN-s)





## AMAIRUGAREN TXATALA

### Yaiak

MUÑA: I. Andre Mariz. — II. Aratustez. — III. Asentsioz. — IV. Astegurenaz. — V. Besta beriz. — VI. Eguuberiz. — VII. Erramuz. — VIII. Elegenez. — IX. Gabonzaiez. — X. Ganderailuz. — XI. Paskoz. — XII. Urteberiz.

### I. — ANDRE MARIZ



ANDRE Maria Martiko-egunean eun Agur Maria efezatzen dira Nafarroa guzian; Benaparaoan ere bai zonbaitek. Amañeko bakotzaren auréan, bean ezariko ditugun erdalitzak esaten dituzte askok.

2. Andre Maria Agofilekoan yendeek ogi-bihia ta arto-bihia xare batzutan ekartzen diuzte Elizarat eta yaun efeitorak benedikatzen ditu

## CAPÍTULO DÉCIMOTERCIO

### Las fiestas

SUMARIO: I. Por (las fiestas) de Nuestra Señora. — II. Por Carnaval. — III. Por la Ascensión. — IV. Por Semana Santa. — V. Por Corpus Christi. — VI. Por Navidad. — VII. Por Ramos. VIII. Por Reyes. — IX. Por Nochevieja. — X. Por la Candelaria. — XI. Por Pascuas. — XII. Por Año Nuevo.

### I. — POR FIESTAS DE NUESTRA SEÑORA

1. En toda Navarra se rezan cien avemarías el día de Nuestra Señora de Marzo; algunos también en Baja Navarra. Antes de cada decena dicen muchos las palabras castellanas que van a continuación: «Alma mía, morirás; al valle de Josefat irás; en el camino encontrarás al enemigo y le dirás: enemigo, apártate, que el día de la Virgen de Marzo cien avemarías recé y otras tantas me santigüé.»

2. Por Nuestra Señora de Agosto suelen traer al templo granos de trigo y de maíz en unos cestos; el párroco los bendice y los niños (ves-

eta haupek (xuriz yauntziak) xare hok prozesionean ibilten diuzte; eta ogi hetarik parte bat Elizan gelditzen da, ostiak egiteko ogiari nahastia; eta bertze partea etxerat eremaiten dute erein behar den ogiari nahasteko.

## II.—ARATUSTE, ARATISTE, INAUTERI

1. Aratiste-gaubea goruetan eginezkerro, linoari sapedaña egiten dako.

2. Ulzaman, bi ta irugařen inautete-egunetan, lastoz beteriko gizon andi bat ateratzen dute, txiki txiki bat lagun duela. *Ziripot* du eŕaldoi onek izena, bere lagunak *Xaldiko*. Kariketan ibiltzen dira. Uztarotzen (Eronkarin) *Aitandi txarko* zuen eŕaldoiak izena, balkoi bitako soka batetik zinzilika yartzen zuten. Languntzat etzuen eporik izaten.

3. *Zanpantzaz*. Frantziařen Saint Pansard du itz onek beronen yatoria. *Pansard*, españiařen «panzudos» bezalatsu, *panse* edo *panza* tikit dator. Benaparoan lastoz egindako gizon bat ihauteriz (aratiste-egunetan) eta hausterez (autsaren egunean) kariketan erabiltzen dute. Gutzik dakite Bizkayan itz onen berri. Oso ezaguna da beste euskalkietan.

4. Orion gazteak irugařen inauteri-egunean kalez kale deadarka ibilten dira; egaur dala María kale,

tidos de blanco) suelen llevar estos cestos en procesión; y una parte de aquellos granos queda en la iglesia mezclada con el trigo destinado a hacer hostias; y otra parte se lleva a casa para mezclarla con el trigo que se ha de sembrar. (BN-gar)


## II. — CARNAVAL

1. Si se hila la noche de Carnaval, al lino se le forma hierba pajarrera. (B-di)

2. En Ulzama (AN), los días segundo y tercero de Carnaval acostumbran a sacar por las calles a un hombrachón envuelto en saco de paja, y con él un hombrecillo. El gigante tiene por nombre *Ziripot*, y el enano, *Xaldiko* (caballito). En Uztarroz (Roncal), el gigante tenía por nombre *Aitandi txarko*, y le ponían colgado de una cuerda atada a dos balcones. No le acompañaba ningún enano.

3. Este vocablo, *zanpantzaz*, tiene su origen en Saint Pansard de los franceses. *Pansard*, que es el español «panzudo», viene de *panse* o *panza*. En la Baja Navarra suelen traer por las calles, los días de Carnaval y ceniza, un hombre hecho de paja. Pocos tienen en Bizkaya noticia de este vocablo, siendo muy conocido en los demás dialectos.

4. En Oriñ (G), los jóvenes suelen andar el dia tercero de Carnaval gritando por las calles: «Que hoy es



Zanpantzaz

San Pansard

biar dala Zanpantzart, egin dezagunarte tripan lañuak zart.»

5. Lekeitio bere, norbaitzuk zauta edo yan-edan andiren bat egiten ebenean, antxina esaten zan: «Egin dozue Zanpantzar da Mari Galeta.»

6. Alduden eta Garazin ihaueri-azkenean edo hausteriez, huts egin gabe, hau eraten da: «Zanpantzaren besta egin behar dugu, gero haren eretzeko edo ithotzeko.»

Eta zubitik ur handira botatzen dute Zanpantzar erdi eŕea danean.

Maria kale, que mañana es Zanpantzart, hasta que en la tripa la piel haga *zart* (estalle).»

5. También en Lekeitio (B), cuando algunos celebraban algún banquete o abundante comida, se decía en tiempos atrás: «Habéis hecho Zanpantzar y María Galleta.»

6. En Alduides y Garazi (BN), el último día de Carnaval o en el de ceniza, sin falta, se dice esto: «Tenemos que celebrar la fiesta de Zanpantzar para después quemarlo o ahogarlo.»

Y suelen arrojar a San Pansard del puente al río cuando está medio quemado.

### III. — ASENTSIOZ, SALBATOREZ

1. Euskaleriaren alde askotan berogeit Credo eŕezatzen dira: nonbait guziak zutik, beste nonbait guziak belauniko eta leku batzuetan erdiak zutik eta beste erdiak belauniko.

2. Oretarako ordu batetan yotzen dira kanpalak, beste egun guztietan ordu bi ta erditan. Mutilak

*A)* Kreda edo tela-zati batez markatzen dituzte Credo eŕezatuak.

*B)* Baztanen eŕosarioa izaten dute eskuan.

3. Asentsio-gabazko amabietan afoltzeak (amaika, amairur edo amabortz) eser ta oiloa loka egon gabe txitak elkitzen dra.

### III. — POR LA ASCENSIÓN

1. En muchas regiones de Euskalherria se reza este día cuarenta veces el Credo: en algunos lugares rezan todas de pie; en otros, de rodillas, y en varios, la mitad de pie y la mitad de rodillas.

(AN, B, BN, G)

2. Para eso se tocan las campanas a la una; todos los demás días, a las dos y media. Los muchachos

*A)* Suelen marcar con greda o con un pedazo de teja los Credos rezados.

*B)* En Baztán suelen tener un rosario en la mano.

(AN, B-eloiz?, G-amezk?)

3. Poniendo huevos a media noche de la Ascensión (once, trece o quince), aunque la gallina no esté clueca, salen los polluelos. (BN-s)

4. Asentsioz kanpai-barura yoanta burua antxe sartu ta 40 Credo efezaten dabez buruko minik ez izateko.

4. Por la fiesta de la Ascensión suelen ir algunos dentro de una campana, meten allí la cabeza y rezan 40 Credos por evitar dolores cerebrales. (B-zean)

## IV. — ASTE GUREN, ASTE SANTU

1. Eguz santuz Getsemaniko baratza zelanbait erakusteko, Jesus belaunikatuaren ondoan olibo adar bat zutunik agertzen eben. Elizbirāa (prozesinoēa) amaituta, lagun asko yoaten zirāan oliboaren oribila. Soil soilik adaria izten eben. Oriak, norbait gaisorik egoanekeko-ta, gordeten ebezan.

2. Egun onetan Ultzaman *pinpilitaka* deritzionan *¿dantza?* egiten da.

3. Eguz gurenez opilak egiten dira, auspean eŕeta. Urengō egunean bariz inok eztau opilik egiten.

4. Eguz gurenez bedeinkatutzen dan eŕamua gari-soloaren iru puntetan sartzen da, berakatz-atalez nastuta, gariari ugarik egin ezta-kion.

5. Ortzirale santuz orantza ezta arotzen.

6. Ostirale santu egunean yaiotzen dana kondenatu egiten da; iltzen dana zeruratu.

7. Donazahairen ezdute ortzirale saintuz sorturik batño ere ezagutzen.

8. Bariku-guren eguna, yaioteko baino ilteko egun obea da. Egun

## IV. — SEMANA SANTA

1. Por Jueves Santo, para mostrar de alguna manera el huerto de Getsemani, sacaban en la procesión, junto a Jesús arrodillado, una rama de olivo enhiesta. Al terminar la procesión, muchas personas iban en busca de las hojas del olivo y las guardaban para cuando alguien estuviese enfermo. (B-1)

2. Este día, en Ulzama (AN) se celebra una *¿danza?* llamada *pinpilitaka*.

3. Por Jueves Santo se hacen tortas, asándolas bajo la ceniza. Pero al día siguiente nadie hace torta alguna. (B-a)

4. La rama que se bendice por Jueves Santo se mete en tres extremos de un campo de trigo, mezclado con gajos de ajo, para que al trigo no se le forme royn. (B-di)

5. Por Viernes Santo, la levadura no fermenta. (BN-gar)

6. El que nace el día de Viernes Santo se condena; el que muere, se salva. (G-urs)

7. En Donazaharre (BN) no conocen ni siquiera uno que haya nacido en Viernes Santo.

8. El día de Viernes Santo es mejor para morir que para nacer.

oretan ilten dana zerura artez doa.

9. Bariku santu-egunean bogadeagaz erekara doanari ura odol bolbiduten dako. Oretxegaiti inor bere ezta yoaten erekara egun oretan,

Ezta nehor uretara yoiten.

10. A) Bariku Sintu egunean eginiko opilari odola egiten dako ta inok ezeban ta eztau egun oretan opilik egiten.

B) Inork eztu lanik egiten.

11. A) Larunbat gurenez (zapatu santuz) elizati etsera su bariä ta ur bedinkatu bariä ekarten dirä.

B) Su beria sartu gabe, etxetik zaharra atheratzen da.

12. Zapatu gurenez (larunbat santuz) elizati etsera ura ekari ta urte guztian etsean eukiten da. Artoari, ereitorduan, ur ori botaten dako.

El que muere en ese dia va directo al cielo. (B-di, G-urs)

9. A quien vaya al arroyo con la bogada (piezas de lavar) el dia de Viernes Santo, el agua se le vierte sangre. Por esto nadie suele ir tal dia al arroyo. (B-di)

Nadie suele ir al agua. (BN-gar)

10. A) A torta hecha el dia de Viernes Santo, le brota sangre, y nadie solia ni suele hacer torta en ese dia. (B-di)

B) Nadie suele trabajar.

(G-urs, BN-gar)

11. A) Por Sábado Santo se traen de la iglesia a casa fuego nuevo y agua bendita nueva.

(B-zean, BN-gar, L-al, S)

B) Antes de meter fuego nuevo se saca de casa el viejo. (BN, S)

12. El dia de Sábado Santo se trae del templo agua a casa y se la tiene en ella todo el año. Al maíz, al sembrarlo, se le echa esa agua.


(B-di, BN-gar, L-halt)

## V. — BESTABERÍ

1. Beran Bestaberíz bi gizon (sindikoa ta bertze kontzejal bat) beltzez lebitakin yantzirik eta tricornio andiz estaliak prozesioan agertzen dire. Sindikoak eñiko bandera batera ta bertzera sakramentu Santuaren auréan erabiltzen du, tuntuneroak au yotzen duen bitarteant:

## V. — CORPUS CHRISTI

1. En Bera (AN), el dia de Corpus Christi, llamado allí, como en los tres dialectos orientales, *Bestaberí* (Fiesta nueva), comparecen en la procesión dos hombres (el síndico y otro concejal) vestidos de negra levita y cubiertos de gran tricornio. El síndico agita la bandera del pueblo a uno y otro lado delante del Santísimo, mientras el tamborilero tañe esta humilde melodía:



Eta mutiko bat zuriz yauntzia, espartzin-lokaři goriak, gerikoa bezalako zer gofi bat beso gainetikoa gerira lotua ta kapelu gorria dituela, sindiko ta bertzeari serbitzeko izaiten da.

Al síndico y su compañero les sigue y sirve un muchachito vestido de blanco, cubierto de boina roja, cintas rojas en las alpargatas y lazo rojo entre la cintura y el hombro.

(AN-bera)

## VI. — EGUBERÍZ

1. Jesukristo yaio zan egunak, bere inguruko garaiak bezala, izen asko ditu euskeraz: *eguberí* Euskaleriaren alde geienetan, *gabonak* Bizkaian; eta gainera Gipuzkoan eta Naparroan *Olentzaro*, *Olentzero*, *Onontzaro...* *Xubilaro*, *Suklaro...* ta besteren bat. *Eguberí* (erderazko, día nuevo) Bizkaian ere orain bosteun bat urte egubarri alzan. Gipuzkoan bi edo iru alde dira, gatz bageko aldakuntza bat eginaz, *egoarí* esaten dutenak. Orain Bizkaian *Natibitate-eguna* esaten diogu egun oři, garaiari *gabonak*. Lengo mende batzuetan Jesusen yaiotze-egunean asten zan urtea. Ona emen Espasa-Calperen *Enciclopedia universal ilustrada* deritzaion 16-garen liburuko 479-garen orialdean gai onezaz dakkunka: Alemanian, amaikagaren mendeian, urtea Jesusen yaiotze-egunean asi oři zan; eta egite au

## VI. — POR NAVIDAD

1. El día en que nació Jesús, como también la época que le rodea, tiene en vascuence varios nombres: *Eguberí*, en casi todas las regiones de Euskalerria; *Gabonak* (las noches buenas), en Bizkaya; y además, en G y N, *Olentzaro*, *Olentzero*, *Onontzaro*, *Xubilaro*, *Suklaro* y algún otro. *Eguberí* (día nuevo, en castellano) hace unos quinientos años, aun en Bizkaya se dijo probablemente *egubarri*. Hay dos o tres pueblos de Guipúzcoa en los cuales, en vez de *egubarri* se oye la insulsa variante *egoarí*. Ahora en B llamamos a ese día *Natibitate-eguna* (día de la Natividad), a la época *gabonak* (las noches buenas). En algunos siglos atrás, el año empezaba en el día que nació nuestro Salvador. He aquí lo que vemos acerca de esta materia en la *Enciclopedia universal ilustrada* de Espasa-Calpe, tomo 16, página 479:

Milanen, Eroman eta Italiako beste uri askotan nagusi izan zan XIII ta XV-garen mende bitartean. Aragonen kristau-aldiaraua, Yaiotze-egunetik asita, aintzat artua izan zan, Valencian 1358 gañenean, Castillan 1383 an, Portugalen 1422 an, Cataluña Tarragonako elizbatzar baten aginduz 1180-garen urtetik zuten oitura au.» Eztakit noiz sartu zan gure artean.

Teresa guren idazkietan, boskañen liburuan ageri da gure eguberiz asten zala orduan urtea.

2. A) *Onenzaro, onentzaro, olenzaro, ononzaro...* itz auezaz nonbait uste bitxiak argia ikusi dute. Eztut astirik beren bila ibili ta zuzena aintzat artu ta oker deritzadana zuzentzen asteko. Zilegi izan bekit neronen asmotxo bat gaineratzea. Ene ustez itz orien bigairen atala —zaro— ezañta belarietan nonnai darabilgun *zaro* (erderazko, época) baizik ezta. *Seinzaro* edo *aurzaro*, *umezaro*, *gaztezaro* ta *zarzaro* «época de infantes, de niños, de jóvenes, de viejos», bezala, *onenzaro* ori, «época de lo bueno», ezta besterik. Eta gero *ikusi-tik ekusi, ekosi* ta *ukusi*-ren antzera, *onenzaro* oíetatik, *ononzaro* ta *olenzaro* ta *olentzaro...* sortu zaizkigu. Naparoako ibar batzuetan eguberri-garai oni *xubilaro* ere esaten diote. Aro, *zaro* bezala «época» da ta *subil* eguberiz sutan yartzen

«En Alemania, durante el siglo XI, era usual comenzar el año por Navidad, y esta práctica prevaleció en Milán, Roma y otras ciudades italianas desde el siglo XIII al XV. En Aragón se adoptó la era cristiana contándola desde Navidad, en 1350; en Valencia, en 1358; en Castilla, en 1383, y en Portugal, en 1422; en Cataluña se usaba desde 1180, fecha en que mandó usarla un Concilio de Tarragona.» No sé cuándo se introdujo entre nosotros.

En el tomo V de las obras de Santa Teresa, *Libro de las fundaciones*, se registra también el hecho del comienzo del año en este nuestro día nuevo.

2. A) *Onenzaro, onentzaro, olenzaro, ononzaro...* En alguna parte han salido a luz ideas curiosas acerca de estos vocablos. No tengo tiempo para ocuparme en buscarlas y empezar a aceptar lo que es recto y enderezar lo que me parezca torcido. Séame permitido añadir una pequeña ocurrencia propia. A mi juicio, el segundo componente de esos vocablos —zaro— no es otra cosa zino *zaro*, época, que lo traemos dondequiera en labios y oídos. Así como *seinzaro* o *aurzaro*, *umezaro*, *gaztezaro* y *zarzaro* son épocas de infantes, de niños, de jóvenes y de viejos, ese *onenzaro* no es más que «época de lo buenos». Y luego, así como de *ikusi*, «ver», brotaron *ekusi*, *ekosi* y *ukusi*, de ese *onenzaro* nos han nacido *ononzaro* y *olenzaro*, etc. En algunos valles de



Onenzaro

Época de lo bueno

duten enpor andia. Zaraitzun *suklaro* du izena. Gainera irudipena ez olerkariak soilik, eriak ere irudipena badu ta uñengo esaldian agertzeko ipuin ta txorakeritxoak *onenzaro* oretatik soñarazi ditu.

también el pueblo la tiene, y con ella ha hecho que de ese *onenzaro* hayan nacido los cuentecitos y ocurrencias que han de aparecer en el párrafo siguiente.

B) Eguberri-gaua *onenzaro*, onen garaia (izendatzen dugu).

3. Onontzaro-mokoia deritzion-egur aundia egun ta gau osoan eretzen idukitzten da. Diman gabon-mukura dau izena ta gau guztian ereten eukiten da. Gaberdiko meza-ondorarte *Onontzaro* (lastozko gizon bat) igitia eskuetan duela (txaketari lotua) txapel ta guzti txaminatik bera zinzilik idukitzten da. Umeai, gaitzto samarrak ziranean, esaten zitzaien: «Onontzaro begigorri txaminira da etori; austen baldin badagu barua, ofek lepoa kendu guri.»

4. Olentzaro tximiniatik jexten dala esaten zuten len Orexan.

5. Larraunen orditako daukate *Ononzaro* eta bere gabean txorimalo bat bezelatsu yantzia dutela itz auek zuzentzen ditie: «Ononzaro, begigorri, ¿non arapatu duk afai ori?» «Bart afatseko amaiketan Zurriola aroketan», erantzuten zuen norbait-ek Ononzaroren izanean.

Nabarra, a esta época de Navidad la llaman también *xubilaro*. *Aro*, como *zaro*, es época, y *subil*, es el gran tronco que ponen por Navidad en el hogar. En BN-s tiene por nombre *Suklaro*. Además, la imaginación no es exclusiva de los poetas; B) A la noche de Navidad (llamamos) *onenzaro*, la sazón de los buenos.

(Lope de Isasti, *Compendio Histórico de Guipúzcoa*, pág. 166.)

3. Se tiene ardiendo en día y en noche entera la gran leña que se llama tronco de Navidad. Hasta después de la misa de medianoche se tiene a *Onontzaro* (un hombre de paja), hoz en mano, cubierto de boina, colgado de la chimenea. A los niños, cuando eran algo revoltosos, se les decía: «Onontzaro, el de los ojos rojos, ha venido a la chimenea; si quebrantamos el ayuno, ese nos quita el pescuezo.»

(AN-lar)

4. Antes, en Orexa (G), decían que Olentzaro bajaba de la chimenea.

5. En Larraun tienen a Ononzaro por borracho, y en su noche, teniéndole vestido como un espantajo, le dirigen estas palabras: «Ononzaro, de ojos rojos, ¿dónde has cogido ese pez (borrachera)?» Alguien, en nombre de Ononzaro, suele responder: «Añoche, a las once, en las rocas de la Zurriola.» (AN-lar, G-amezk-don)

6. La fauna en este año egún aiña begi ta bat geiago ditu Ononzarok. Berau dugu beraz euskaldunen Argos.

7. Arakilen Olentzaro leio batek zinzilika yartzen dute lastoz yantzia, soroetako kukusu bat bezala.

8. La fauna en este año aria iruten zan, María Santísima en oropenean.

9. Bizkaiko ura ta basauri as-kotan, Lamiakandik burua gordetze-ko, eguberri-goizean iruniko ariz egi-ten zituzten atoñak. *Lamiak Euskal-errian* deritzion lan batetik ar di-tzagun itz auek: «Bein Lamiaran-en (1) barna gizon bat bidez zijoan. Itsasondoan Errosape (1) deritzion zubitxo-ondoko latsean (erékan) ere Lamiak bizi ziran; eta aietako bat-ek, gizon bidezti hura ikusita, uluka ta gañasiz itz auek esan zizkion goialdeko lagun bat: «A Lamiaran-goa!» «Zergura dona, Efosapeko?», erantzun zion Lamiarandik lagunak. «Or doan oñeri bota eiona lakirioa.» «Zelan botako dotsanat lakirioa? Gabonariz egina daroiana soinekoas» (2).

#### 10. Eguberri gaberdiko Meza

(1) Lamiaran eta Errosape Bermeo ta Mundaka-bitarteko leku bi dira.

(2) *Euskera*, VIII-110.

6. A juicio de los larrauneses, Ononzaro tiene tantos ojos como días tiene el año y uno más. Por lo mismo es él el Argos de los vascos.

7. En Arakil (AN) suelen poner a Olentzaro colgado de una ventana, vestido de paja, como un espan-tajo de heredades.

8. En Larraun (AN), la mañana de Navidad se hacia hilo en recuer-do de María Santísima.

9. En muchas villas y aldeas de Bizkaya, por defenderse de las Lamias, solían hacer camisas con hilo elaborado en la mañana de Navidad. De un trabajo titulado *Lamiak Euskal-errian* (*Las lamias en Euskal-erria*) tomemos estas palabras: «Una vez iba un hombre caminando por Lamiarán (valle de las Lamias) (1). Vivian también Lamias junto al mar, en el arroyo de junto al puente llamado Errosape (1), y una de aqué-las, al ver al hombre caminante, di-rigió ahullando y gritando estas pa-labras a una colega de la parte alta: «Ah, la de Lamiarán!» «¿Qué quieres tú, la de Errosape?», le respondió desde Lamiarán la compañera. «A ése que va ahí échale el lazo.» «¿Cómo he de echarle el lazo? Lleva una ves-timenta hecha con hilo de Navi-dad» (2).

10. Por Navidad, después de la

(1) Lamiaran y Errosape son dos lugares situados entre Bermeo y Mundaka (B).

(2) *Euskera* (Rev. de la Acad.). VII-110.

ondorean sorgin-aparia (1) egin ta su edera izeki ta serbileta (zamau) zuri-gainean ogia yartzen da. «Aingeruak dantza ditezela gure sukaldleans» esan ta uzten da ogia, baldin Mariak eta San Josek yan nai badui.

11. Xubilaroz sukaldea xuxkitatu bear da ta mezondoan gan berrean gari naiz garagar-bikorik agertzen bada, urte gura garitsua edo garagartsua izanen da. Aragonen ere onelaxe uste dute.

12. Eguberri-bezpera gabean suklaro-egurra zati bat ere ta bertzea pobreal ematen diegu.

13. Gabon-gabean su andi andia egiten eben, Jesus berotzeko zala-ta. Gabon-sua zan bere izena.

14. Gabon-gaberdiak krabelinea lufean landatu-ezkerro, edera etorten eida.

15. Euskalherriko kantak deritzaion lanean, amaikagaren liburuak, eskelarienak ageri dira. Itzauñetxoan auxe irakur daite: Liburu onetan dautzan laurogei ta amarratik berogeji ta amar eguberri-kantak dira.»

16. Eguberri-añeko gabean egur batzuk autatzen dira, itz auek esanez: «Au Jaungoikoaren dako, au Ama

Misa de medianoche, se hace la cena de brujas (1), se enciende un hermoso fuego y se pone pan sobre la servilleta. «Que bailen los ángeles en nuestra cocina», diciendo, se deja el pan, por si quieren hacer uso de él María y San José. (AN-laf)

11. Por Navidad, se debe barrer bien la cocina, y si después de Misa aparecen allí granos de trigo o de cebada, aquel año será abundante en uno u otro cereal. Así creen también en Aragón. (AN-ae-arak)

12. La víspera de Navidad, a la noche, se quema un trozo de la leña de Navidad, y el otro lo damos a los pobres. (BN-s)

13. En la noche de Navidad o Nochebuena hacían un fuego muy grande, diciendo que era para calentar a Jesús. Su nombre era fuego de Navidad. (B-I-m)

14. Dicen que plantando en tierra un clavel por Navidad a media noche, brota muy hermoso.

(B-garay)

15. En la obra conocida con el nombre de *Cancionero popular vasco* se publicaron las canciones de ronda en el tomito undécimo. En su pequeño prólogo se dice: «De los noventa números de que consta este volumen, cincuenta son canciones de Navidad.»

16. La noche de la víspera de Navidad se eligen unas leñas, diciendo estas palabras: «Esta para Dios,

(1) Orduaren gatik soilik du izen au.

(1) Idáñase así simplemente por la hora.

Birjinarendako, au Aita ta Amaren-dako, au anai Pedrorrendako» (izena nola den)... eta orela gainerako egui-akin egiten da. Atzena kanpoan da-bilen eskalearendako izaten da (1). Jaungoikoaren eguna San Anton eguna-ko goredetzen dute. Egun onetako goizaldean atarian su ematen diote egur oni ta zaldi ta beorak, elizari iru-itzuli ematera eraman ta gero, etxe-rakoan, egui oñen gainetik igaroaraz-tten dituzte. Etxe guzietan egiten da au. Beste egurak eztira gordetzen. Gero Jaungoikoaren eguraz etxea lurintzen da.

17. Laiaunen (Baztanen, Barkoxen eta Garazin ere bai) eguberri bez-pera-gabeen mezatara yoaterakoan familia guziak, deabruari begi bat ateratzeko, zerbait berri soineratzen dui: naiz kaltzerdia dala, naiz soineko berria, naiz espartzina, naiz zapatak.

18. Gabon-gabeko autsa soloetara San Esteban egunean eroaten dabe Ibarurin, kurutze-taiuan lui-ean zabaldu ta pisti guztiak ilten eidauz.

19. Subilaro-eguna ondartzan zen-ean goratzen zute. Beiari eroan bei-oi sortzen zitzainean, egur-puska

(1) Erason (Imotz-ibarren) egur ba-kotzari jabearen izena lotzen zaio. Aie-tarikoren bat iltzen bada, bere eguna zinzilika oge-ondoan yartzen da.

ésta para la Madre Virgen, ésta para el padre y la madre, ésta para el hermano Pedro» (según sea el nombre)... y así se hace con las restantes leñas. La última suele ser para el mendigo que anda fuera (1). La leña de Dios se guarda para el día de San Antón. Al amanecer de este día, suelen dar fuego a esta leña en el por-tal, y a los caballos y yeguas, des-pués que han dado tres vueltas a la iglesia, al volver a casa, les hacen pasar por encima de esa leña. Las otras leñas no se guardan. Luego se aromatiza la casa con la leña de Dios.

(AN-arak)

17. En Larraun (AN) (también en Baztán, Barkhus y Garazi), la víspera de Navidad, a la noche, al ir todas las familias a Misa, por arrancar un ojo al diablo, suelen vestirse algo nuevo, ya sean medias, ya un traje, ya alpargatas o za-patos.

(Ikusi — véase — *Eramuz*, por fiesta de Ramos, § 1.)

18. En Ibaruri (B) suelen llevar el día de San Esteban a las here-dades la ceniza de la noche de Na-vidad, la esparcen en forma de cruz y creen que así mata todas las ali-mañas.

19. Solían guardar el leño de Na-vidad, más bien su residuo. Cuando a la vaca le nacía inflamación en la

(1) En Eraso (del valle de Imotz) a cada leña se le ata el nombre de su dueño. Si alguno de aquéllos muere, se cuelga su leña junto a la cama.

gebek efe eketan eta ehoa ekeztatzentz zute.

20. Aragonen eguberri-egurra iru egunetan eretzen dute. Bere autsa gari-aziaren gainera egoztekogordetzen da.

21. A) Eguberri gaien haurek tximiniapean oskiak garbi-garbirk ezartzen tizie ta biharamen goizean pastila ta pelot ta karameloz beterik aurkitzen dituzte, tximinian bera Jesus hauak ekhaírik.

B) Oitura au Euskalerri osoan zabaldua da orain, batez ere urri anditoetan. Erdaleritik ekaria dirudi.

22. Gabon-aparitako ogi-kuzkuña kurutzea egin ta luñera bota (egotzi) ta zakurak ezomendue jaten.

ubre, solían quemar al humo estos residuos y con ellos humeaban la ubre. (BN-ae)

20. En Aragón, el leño de Navidad se tiene ardiendo tres días. Su ceniza se guarda para echarla sobre la simiente de trigo.

21. A) La noche de Navidad suelen colocar los niños bajo la chimenea, muy limpios, sus zapatos, y a la mañana siguiente los hallan llenos de pastillas, pelotas y caramelos, habiéndolos traído el Niño Jesús por la chimenea abajo. (S)

B) Esta costumbre está ahora esparcida en toda Euskalerria, especialmente en las villas de alguna importancia. Parece importada de países extraños.

22. Dicen que arrojando al suelo el currusco de pan de la cena de Nochebuena, haciendo sobre él una cruz, no lo comen los perros.

(G-aron)

## VII. — ERAMUZ

1. Eramu-egunez yauntzi beri bat estrenatzen duclarik deabruari begi bat kentzen omenzako.

2. Eramu-egunean yantzi bat, nai zapi bat baino ezpada bérre, estrenetea ondo da.

Aragonén diote «Eramu-egunean adelurik eztarabilenak eztu eskurik».

3. Luzaideen, orai dela ogeita amar bat urterartio, eramu-egunez

## VII. — POR LA FIESTA DE RAMOS

1. Estrenando un nuevo vestido el día de Ramos parece que al diablo se le quita un ojo.

(BN-luz-gar, AN-b)

2. Es bueno estrenar el día de Ramos un vestido, o aunque no sea otra cosa que un pañuelo.

(B-1, G-zeg)

En Aragón dicen: «El que no estrena nada el dia de Ramos, no tiene manos.»

3. En Valcarlos (BN) hasta hace unos treinta años, y aun hoy en Do-

Ebangelioa kantatzen zelarik, Elizatik karikara ateratzen ziran zer aizezen ikusteko; eta aize hura urte guzian nagusi ibiliko zela uste zuten. Donazaharen eta Barkoxen eta Lapurdin orai ere bai.

Exactamente lo mismo dice Sebillot en su *Coutumes populaires de l'Haute Bretagne*, I-233: *On croit que le vent qui souffle le dimanche des Rameaux, pendant l'Evangile, est celui qui dominera pendant le reste de l'année.*

4. Éramuz sagara-bitartean den eguraldia befogei egunez egiten du.

nazaharre (BN), L y S, al cantar el Evangelio el día de Ramos, solían salir del templo a la calle para ver qué viento reinaba; y creían que aquel viento había de dominar todo el año.

4. El tiempo que hace por Ramos, mientras la Consagración, suele reinar cuarenta días. (AN-b)

### VIII. — EREGENEZ

1. A) Erege-bezpera gabean etxeko artean botatzen tuzte kartak: gizonendako erege urea, emaztekiendako bateko urea. Gebek izaten dira erege ta eregina. Aurek leiotik oiu eiten dute erege ta eregina nor diren ta eben osasunari (*sic*) artxen dute afuritxo bat. Gero fareak xo ta «Biba Erege, biba Erege»; fareak beriz ilarosi ta «Biba eregina, biba eregina», oiu eiten da.

B) Donazaharen, Frantziako toki anitzetan bezala, baba-azi bat sartzen da bizkotxa batean. Hura atzematen duena Eregina izaten da ta hark hautatzen du Erege. Gero «Biba Erege, biba Erege.»

2. Aldi baten egun onek beste izen bat eban: *Apalazio* (B) (erderazko, *aparición*; latinezko, *apparitio*). Amasei ta amazazpigaren mendeetan *Aparicio* gizon askori ipinten eutsen izentzat. Lekeitio ta ingu-

### VIII. — POR FIESTAS DE LOS REYES

1. A) La noche de la víspera de Reyes echan las cartas entre los de casa, para los hombres el rey de oros, para las mujeres el as de oros. Estos suelen ser el rey y la reina. Los niños suelen gritar (anunciar) de la ventana quiénes son el rey y la reina, y suelen hacer una cenita a la salud de ellos. Luego tocan los cencerros y gritan: «Viva el rey, viva el rey»; agitan los cencerros de nuevo y «Viva la reina, viva la reina».

(BN-ae)

B) En Donazaharre (BN), como en muchos lugares de Francia, se mete una simiente de haba en un bizcocho. Es reina la que lo coge y ella elige al rey. Después «viva el rey, viva la reina».

2. Un tiempo este día tuvo otro nombre: *Apalazio* en B (el castellano, *aparición*; latín, *apparitio*). A muchos hombres pusieron por nombre en los siglos XVI y XVII *Aparicio* (no Aparición). Puede verse esto en los



ruetako eliza-liburuetan ikusi dagi-  
ke an.

3. Euskerazko oiuki-piloa (mila ta batekoa) argitaratu zanean, zortzireun ta abar, melodiaz apaltxoak ziralako, ilunpean utzi zituen beren biltzaileak. Beretariko bati, egoki datoñelako, leku egin lezaio emen. Zeanurin, Antonina Langararengandik, ikasi nuen.

libros parroquiales de Lekeitio (B) y sus contornos.

3. Al dar a luz el *Cancionero popular vasco* (de mil y un números), el que los recogió dejó inéditos, por ser sobrado humildes de melodía, ochocientos y pico. A uno de ellos, por encajar adecuadamente, se le puede aquí dar cabida. Lo aprendí en Zeanuri (B) de Antonina Lángara,

*Allegretto.*

Gi-parla - zi u-ati duu-ii i-re Et-e-ges e-gan-ii. I-re Gie-gel bioldu  
gau-ku limusam - Ma bat de-ga-ii. O-la e-tu pala ah Martingureuren kontu - ah

Martin gu-reo-ri e-ro-an daultzietatproi-fanda ka-ku - SK. Aren u enrik bala o-  
zem-ik, ah dura-bilitzen kontu - ah! sallo ta bradi; bantka ta sallo lise Ma - oo-an mire-  
on, gabun graubeko intarne saltseak quele bat-a-de arte - an.

El caballero Apalazio (Aparicio), dia de los Tres Reyes. Tres Reyes nos han enviado, teniendo nosotros una limosnita. Argomas y palos, cosas de nuestro Martín. A nuestro Martín el gato le ha llevado siete pollas. No pudiendo recoger sus huesos, ¡qué historia trae él! Salto y brinco, brinco y salto, delante de José María, hasta que se les borre totalmente la salsa de nueces de la Noche de Navidad.

4. Oitura onen antzeko bat ezaguna zan sortaldeko eri askotan ere. Ona emen Dom Calmet-ek *Dictionnaire historique... de la Bible* deritzaion lan ederaren laugaren liburuauan (126-garen oñialdean) diona: *Rois du repas. Dans les grands festins on créait un roi qui assignait à chacun sa place; ce roi était élu par le sort, ou était choisi par celui qui donnait le*

4. También en muchos pueblos del Oriente era conocida una costumbre semejante a ésta. He aquí lo que dice Dom Calmet en el IV tomo (pág. 126) de su hermosa obra *Dictionnaire historique... de la Bible*: «*Rey de banquete*. En los grandes festines se nombraba un rey, encargado de designar su puesto a cada uno. Este rey era elegido a suertes o por

*repas. Il commandait, et on était obligé de lui obéir. L'auteur du livre de l'Ecclésiastique parle de cette coutume (XXXI). Il semble que cet usage était connu non seulement chez les Grecs et chez les Latins, mais aussi chez les Perses.*

## IX. — GABON ZAÑEZ

1. Elgoibarren ta Larraurin neska-mutilak gabonzaí-aratsaldean zabaldean (plazan) biltzen dira. Añalesku ta dantzak egiten dituzte. Egun arantxe alkarr begiz yota neska-mutil asko senar-emaztetzen omendira.

2. *Urkugau.* Neska-mutilen yostaketa bat da, gabon zar iluntzekoa. Mutilak soka batez lotuta eramatzen ditue neskatzak. Neskatzak yateko zerbaile biaramonerako eskintzen die, beren buruak lokari bage ikustearien. Beste onenbeste egiten due neskatzak mutilakin efege-bezperan.

El texto original es el francés, tomado por el autor del *Diccionario V.-E.-F* de un manuscrito de Oihenart, en la Biblioteca Nacional de París.

*Passetemps des jeunes garçons et filles le soir du dernier jour de l'année, auquel les garçons attachent une corde aux jambes des filles et les traînent de la sorte comme captives jusqu'à ce qu'elles aient offert quelque chose de bon à manger pour en faire un festin le lendemain. La veille des Rois les filles font la reciprocidad aux garçons.*

2 bis. Oitura onen antzekoa zan Babiloniaien bat, René Ménard en *La vie privée des anciens* deritzion lanean (II, 53-17) dakuskuna. «Eskontzazko oitura bitxi, Babiloniaien bat dakar Herodotok... Basezi bakoitzean alaba ezkon-gaien gurasoak urteoro toki autatu bat-


aquel que daba el banquete. El mandaba y los demás estaban obligados a obedecerle. De esta costumbre habló el autor del libro del *Eclesiástico* (XXXI). Parece que esta costumbre era conocida no sólo entre griegos y latinos, sino también entre persas.

## IX. — POR NOCHE VIEJA

